



OTXANDIOKO UDALA
Ayuntamiento de Otxandio
(Bizkaia)

IFZ P4808500E

**5F) ANIMALIAK BIDE PUBLIKOTIK JASOTZEKO ZERBITZUAREN TASA
ARAUTZEN DUEN ZERGA-ORDENANTZA**

1. ARTIKULUA:

Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Ogasunak arautzen dituen ekainaren 30eko 5/89 Arauak ematen dituen ahalmenak erabiliz, animaliak bide publikotik jasotzeagatiko tasa finkatu eta exijitzen du Otxandioko udal honek. Tasa hori Zerga-ordenantza honek artatuko du, aipatutako Foru Arauaren 20tik 27ra bitarteko artikuluetan xedatzen denari jarraiki.

2. ARTIKULUA:

Ordenantza udalerrri osoan aplikatuko da.

EGITATE ZERGAGARRIA

3. ARTIKULUA:

Bide publikotik etxeko animaliak jasotzeko zerbitzua ematea izango da tasaren egitate zergagarria, ordenantza honen 7. artikuluko tarifen arabera.

SUBJEKTU PASIBOAK

4. ARTIKULUA:

Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 33 artikulua aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak izango dira zergadun jiteko subjektu pasiboak, ordenantza honek araupetzen dituen prestazioak eskatzen edo eragiten dituztenean edo haien intereserako direnean.

ERANTZULEAK

5. ARTIKULUA:

Zerga-erantzukizunei dagokienez, Bizkaiko Lurraldeko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 37. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutakoari egingo zaio men.

ZERGA-ONURADUNAK



OTXANDIOKO UDALA
Ayuntamiento de Otxandio
(Bizkaia)

IFZ P4808500E

6. ARTIKULUA:

Salbuespenak edo beste zerga-onurak ematerakoan aplikatu beharreko arauen xedapen orokorretan finkatutakoari kasu egingo zaio.

ZERGA-KUOTA

7. ARTIKULUA:

Zerga-kuota eranskinean adierazitako tarifak aplikatuz zehaztuko da.

SORTZAPENA ETA EZARPEN ALDIA

8. ARTIKULUA:

Tasa eta ordaintzeko betebeharra zerbitzua abiatzen denean sortuko dira, onuradunak eskatuta edo hark zuzenean eragin duelako.

LIKIDAZIOA ETA SARRERA

9. ARTIKULUA:

Tasa animalia-aren jabeak edo titularrak likidatu eta ordainduko du udal-bulegoetan animalia harrera-zentrotik jaso aurretik.

Hala ere, zerbitzua zuzenean eskatuz gero, tasaren zenbatekoa aurretiaz ordaintzea eskatu ahal izango da.

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

10. ARTIKULUA:

Zerga arau-hausteen kalifikazioari eta haien zehapenei dagokien guztian Zergei buruzko Foru Arau Orokorrari egingo zaio men.

ERANSKINA - TARIFAK



OTXANDIOKO UDALA
Ayuntamiento de Otxandio
(Bizkaia)

IFZ P4808500E

	2019
A) Bide publikoan utzitako animaliak jasotzea <i>A) Por recogida de animales abandonados en la vía pública</i>	
Irteera / Salida	76,50 €
Animali ez harrapatuak / animales no capturados	24,20 €/ordua
Arma anestesikoa erabiltzea / Uso arma anestésica	90,75 €
B) Harrera-zentroan emandako egun bakoitzeko <i>B) Por día de estancia en el centro de recogida</i>	8,10 €
C) Albaitaritzaren azterketa, barruko eta kanpoko desparasitazioa <i>C) Por revisión veterinaria, desparasitación interna y externa</i>	24,20 €
D)Txertaketa D)Vacunación	24,20 €
F) Eutanasia <i>F) Eutanasia</i>	60,50 €
G) Errausketa G) Incineración	60,50 €
G) PPP lizentziak/erregistroak <i>G) PPP licencias/registros</i>	80,00 €

INDARRALDIA ETA ONARPENA

Ordenantza hau eta bere eranskina 2006ko azaroaren 9 egunean egin zen osoko bilkuran onartu zuen Udalak; BAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Indarrean egongo da hura aldatzea edo ezeztatzea erabakitzen den arte.